

## Hizkuntza-plangintzaren alorrean erabaki kementsuak hartu behar dira, euskararen galera eragozteko

**E**uskal Herri osoan euskararen egoera baloratzea ahalbidetzen duen azterlanari buruzko hiru gogoeta nagusi azpimarratu nahi nituzke.

Lehenik, inkesta honek Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko lankidetzaz indartzea ahalbidetu du. Izatez, adostasun-lan handi honek urte t'erdia baino gehiagoz izan ditu lanean Euskal Kultur Erakundearen arduradunak eta Eusko Jaurlaritzako eta Nafarroako Gobernuako hizkuntza politikarako erakundeak.

Honez gain, Ipar Euskal Herrian galdetegiaz eta inkestarien prestakuntzaren zati batez Institut National de la Statistique et des Études Économiques, INSEE Aquitaine, arduratu izanak inkesta profesionaltasun handiz gauzatu izana ziurtatzen du.

Emaitzei dagokienez, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan euskaldunen kopuruak ezinbestez behera egin duela erakusten dute. Hala eta guztiz ere, populazioaren zati handi batek azaldu duen aldeko jarrera eta interes erreala kontuan izanik, azpimarratu behar dugu hizkuntza-plangintzaren alorrean erabaki kementsuak hartu behar direla euskararen galera eragotzi nahi badugu.



**Erramun Bachoc**  
Euskal Kultur  
Erakundearen burua

## Gaur egun populazioaren %68k errespetuzko jarrera dute gure hizkuntzarekiko

**N**afarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak hainbat ikerketa-lan egin ditu 1991. urtean martxan jarri zenez geroztik, Euskararen Legearen 5.3. artikulua ezartzen duena betez.

Ikerketa hauen artean 1991. urtean Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan jardunez eta *Euskararen Jarraipena* izenburupean argitaratu zen ikerketa-lana azpimarratu behar dugu. Izan ere, ikerketa-lan honek Nafarroaren muga geografikoak gainditu eta Euskal Herri osoari buruzko informazioa eskaini zuen eta, gainera, bi elkarte hauek interes komuneko gai bati buruz, euskarari buruz alegia, elkarrekin egin zuten lehen ikerketa-lana izan zen.

Nafarroaren eta Euskal Herri osoaren errealitate soziolinguistikoa zehatz-mehatz ezagutu beharrak guztiz justifikatzen du azterlanak eta ikerketak egitea. Bildutako informazioa erabiliz errazagoa gertatuko da hizkuntza-politika jakin bat beharrezkoa duten eremu guztietan eragitea eta antzemandako

beharrei erantzun egokia emango dieten planak diseinatzea.

Zehaztasun zientifiko handiz egindako ondoko ikerketa honek hiru elkarte desberdinetan euskara berreskuratu eta sustatzeko helburuarekin lan egiten duten organismoen ahaleginak batu ditu. Berrito ere adierazi nahi dut lan hau batera egitea posible izan dela eta horren emaitza gure aurrean dugun froga hau dela. Aurrekari honekin gure hiru lurraldeak animatu nahi nituzke elkarrekin egiteko lanetarako baliabideak jartzera hiruren arteko beste proiektu batzuetarako, ematen zaigun aukerari ezin baitiogu muzin egin.

Lortu diren datuek osotasunaren ikuspegia ahalbidetzen dute, bai eta maila desberdinetako azterketa xehekatua ere. Nafarroaren kasuan azterketa xehekatu honek Euskararen Legeak ezartzen dituen hiru hizkuntza-zonak aztertzen ditu. Horien guztien artean honako hau nabarmenduko nuke: 1991tik gaur arte Nafarroako populazioak euskarari buruz duen iritzia asko aldatu da. Gaur egun populazioaren %68k errespetuzko jarrera dute gure hizkuntzarekiko eta hori pozgarria da, denoi etorkizun baikorra iragartzen digun heinean.

Ziur naiz ikerketa-lan hau tresna baliagarria izango dela adituentzat zein gure hizkuntzaren errealitatea ezagutu nahi duen edonorentzat.

---

**Fernando Pérez de Viñaspre Márquez**

Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia



**Euskararen galera gelditu egin da eta familia bidezko transmisioa hazi, pixkanaka baina etengabe.**

**Halaber, euskarak hiztun asko irabazi ditu eta, azkenik, euskararen erabilerak gora egin du seme-alaben artean, lagunartean, lanean eta eremurik fomalenetan**

**1**979ko Autonomi Estatutuaren arabera, euskara Euskal Herriaren berezko hizkuntza da eta, gaztelaniarekin batera, hizkuntza ofiziala Euskal Autonomi Elkartearen. Horrela, hizkuntza biak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea aitortzen zaie euskal herritarrei. Bestalde, Euskararen Erabilera Arauzkotzeko 10/1982 Oinarrizko Legeak Euskal Autonomi Elkarteko biztanleen hizkuntza-eskubideak jaso eta herriaginteen betebeharrak zehazten ditu, euskararen erabileraren normalkuntzari eta sustapenari dagokionez.

10/1982 Legea onartu eta hizkuntza-normalkuntza mamitzeko erakunde desberdinak sortu ziren, hala nola, Euskararen Aholku Batzordea (1982), Euskal Irrati Telebista (EITB) (1982), Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE) (1983), Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (HAEE) (1983) eta Hizkuntza Politikarako Sailordetza (1983). Horren ondorioz, hizkuntzaren normalkuntzak aurrerapausu handiak eman ditu, batez ere, hezkuntzan, komunikabideetan, administrazioan eta, orokorrean, gizarte osoan, euskararen erabilera sustatzeko gauzatu diren hainbat egitararen bidez.

Azken urteotako hizkuntza-politikaren helburu nagusia erabilera zabaleko hizkuntzaren hiztunen eskubideak erabilera urrikoek ere pixkanaka izango dituztela bermatzea eta, horrela, gizarte gero eta elebidunagoa eta integratuagoa lortzea izan da.

Euskal Herrian bigarrenez egin den soziolinguistikazko inkesta honen emaitzek alde aurretik egindako ikerketen ondorioak berretsi egin dituzte. Gainera, argi eta garbi ikusten dira azken 15 urteotan hizkuntza-politikak lortu dituen emaitzak Euskal Autonomi Elkartearen. Euskararen galera inbertitu egin da eta euskararen familia bidezko transmisioa hazi, pixkanaka baina etengabe. Halaber, batez ere hezkuntza-sistemari esker, euskarak hiztun asko irabazi ditu gazteen artean eta, azkenik, euskararen erabilerak gora egin du seme-alaben artean, lagunartean, lanean eta eremurik fomalenetan.

Bestalde, inkestaren emaitzek Nafarroako eta Iparraldeko egoera sakonago ezagutzeko balio dute eta, horren ondorioz, Euskal Herria osatzen duten lurraldeen arteko elkarlana erraztu egingo da. Ziur nago Euskal Herriko II. Soziolinguistikazko Inkesta tresna benetan baliagarria izango dela Euskararen Aholku Batzordearentzat. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia proposatu eta, bereziki, azken urteotan martxan jarri diren hizkuntza-normalkuntzarako programarik garrantzitsuenen emaitzak eta eraginkortasuna neurtu ahal izateko. Aldi berean, gaur egungo egoeraren diagnosis egiteko aukera izango dugu, etorkizunerako proposatuko diren jarduerari begira.

Ez dut bukatu nahi ikerketa-lan honen fase desberdinetan nola edo hala parte hartu duten talde, erakunde, enpresa eta zuzendari zein teknikarien lankidetzari biziki eskertu gabe. Euren ahaleginagatik izan ez balitz, nekez kalera zitekeen argitalpen hau. Eskerrik beroena guztioi.



**1** 1989an, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritzak (gaur egun Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailordetza) *Soziolinguistikazko Mapa. 1986. urteko eroldaren arabera Euskal Autonomi Elkarteko azterketa demolinguistikoa* izeneko azterlana argitaratu zuen.

Bertan biltzen ziren gomendioetan oinarrituta, 1991n Euskal Herriko I. Soziolinguistikazko Inkesta egin zen eta emaitzak *Euskararen Jarraipena. La Continuidad del Euskera. La Continuité de la Langue Basque* lanean argitaratu ziren.

80ko hamarkadaren amaieran eta 90eko hasieran sortutako ikerketa-lerro aplikatuari jarraipena emanez, Euskal Autonomi Elkartean II. Soziolinguistikazko Maparen idazketa prest dago, 1981, 1986 eta 1991ko zentsu eta erroldetako datuetan oinarriturik.

Nafarroan ikerketa soziolinguistikoa *Distribución de la población navarra según el nivel de euskera, basado en los datos del padrón de 1986* lanaren argitalpenarekin hasi zen. 1995ean *Euskara Nafarroan zertan den. Investigación sociolingüística sobre el Euskera en Navarra* kaleratu zen. Gaur egun moldiztegi dago 1986ko erroldako eta 1991ko zentsuko datuen arabera prestatu dugun Mapa soziolingüístico de Navarra lana osatuko duen bigarren alea.

Era berean, Euskal Herriko II. Soziolinguistikazko Inkesta burutu da 1996an. Inkestaren helburuak honakoak dira:

- Euskal Herriaren gaur egungo egoera soziolinguistikoaren azterketa sakona egitea, ondoko gaiei buruz dagoen informazioa egiaztatzeko: hizkuntza-gaitasunaren bilakaera; euskararen erabilera etxean, familiarik kanpoko gertuko komunitatean, lanean eta eremurik formalenetan; aldi berean, euskararen erabilera sustatzeko hartu beharreko neurriei buruz biztanleriaren interes eta jarreretan sakontzea; familia bidezko transmisioari buruzko diagnosia egitea eta euskaldunberrien erakarpina eta hizkuntza-jokabidea aztertzea.
- Maila ezberdinetan informazioa lortzea, hala nola:
  - Maila sinkronikoan: hizkuntzaren gaur egungo egoera ezagutzea, batez ere Iparraldean, bertako zentsuetan ez baita gai hau jasotzen.
  - Maila diakronikoan: maila bereko informazioan oinarrituta, hizkuntzaren bilakaera ezagutzea, 1991ko I. Soziolinguistikazko Inkestako datuekin alderatuz.

**1** 1991n Euskal Herriko I. Soziolinguistikazko Inkestan egin zen moduan, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetza, Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia eta Iparraldeko Euskal Kultur Erakundea elkarlanean aritu dira 1996ko ikerketaren fase desberdinetan, hau da, galdesortak diseinatu, prestatu eta lurralde bakoitzari egokitzerakoan, laginen finkapenean, datu-bilketan eta txostenen idazketan.

Oraingoan ere, Montrealeko Université de Québeceko R. Bourhis jaunaren aholkularitza eta ekarpenak balio handikoak izan dira.

Laginen diseinua eta prestakuntza Euskal Estatistika Erakundeak (EUSTATEk) egin du Euskal Autonomi Elkartean. Iparraldean, berriz, Institut National de la Statistique et des Études Économiques (INSEE) arduratu da eta Nafarroan, azkenik, Nafarroako Gobernuko Estatistika Atala. Ikerketa honen emaitza nagusiak aurkeztuko dira datozen orriotan. Beranduago emaitza ezberdinak sakonago aztertuko dituen txostena argitaratuko da eta, bertan, batez ere, Euskal Autonomi Elkarteari, Iparraldeari eta Nafarroari buruzko informazioa jasoko da.

**I**nformazio-bilketa 1995eko abendua eta 1996ko apirila bitartean egin da. Inkestatu bakoitzari etxean egin zaio inkesta, egituratutako galdesorta erabiliz.

Euskal Autonomi Elkartean Gizaker eta Araldi enpresek egin dute landalana, Nafarroan Taller de Sociología-k eta Iparraldean Euskal Kultur Erakundeak.

15 urtetik gorako biztanleei zuzendutako laginak 6.359 inkesta bildu ditu: Euskal Autonomi Elkartean 3.495 inkesta, Nafarroan 1.464 inkesta eta Iparraldean 1.400.

Lurralde bakoitzean 15 urtetik gorako biztanleriari proiektatu zaizkio emaitzak, 1991ko zentsuan jasotako datuetan oinarrituta Euskal Autonomi Elkartean eta Nafarroan eta 1990eko zentsuko datuetan Iparraldean. Gainera, emaitzak ponderatu egin dira lurralde bakoitzean, 15 urtetik gorako biztanleriaren banaketa sexuaren, adinaren eta jardueradarraren arabera. Euskal Autonomi Elkartean eta Nafarroan euskaldunen eta erdaldunen banaketa ere kontuan hartu da (Iparraldeko zentsuan ez da euskararen ezagutzari buruzko informaziorik jasotzen).

Euskal Autonomi Elkartean eta Nafarroan, inkestak zein zentsusekziotan (konglomeratutan) egin behar ziren erabakitzeke, etapa anitzeko laginketa geruzatua erabili da. Konglomeratu bakoitzean, familiak modu sistematikoan aukeratu dira eta familia bakoitzean norbanakoaren aukeraketa ausazkoa izan da. Iparraldean, berriz, inkestak zein etxebizitzatan egin behar izan diren erabakitzeke etapa bakarreko laginketa geruzatua erabili da. Etxebizitza bakoitzean norbanakoaren aukeraketa ausazkoa izan da.

Euskal Herriko lagin osoaren laginketa-errorea  $\pm 1,6$ koa da %95,5eko konfiantza-mailarako eta  $p=q=\%50$ . Konfiantza-maila bererako, lurraldekako laginketa-erroreak honako hauek dira:  $\pm 2,1$ ekoa EAEn,  $\pm 2,9$ koa Iparraldean eta  $\pm 3,5$ koa Nafarroan.






## Biztanleria lehen hizkuntzaren arabera

Euskal Herriko biztanleriaren hiru laurdenen lehen hizkuntza erdara da

**A**ma-hizkuntza edo lehen hizkuntza hiru urte bete aurretik ikasitako hizkuntza da. Ama-hizkuntzaren ikuspegitik hiru talde bereiz daitezke: lehen hizkuntza euskara izan dutenak, lehen hizkuntza euskara eta erdara izan dituztenak eta, azkenik, lehen hizkuntza erdara (gaztelania, frantsesa edo beste edozein hizkuntza) izan dutenak.

Euskal Herrian, 15 urtetik gorako biztanleen artean, lautik hiruk (%77,7, hau da, 1.887.100 lagun inguru) erdara izan dute lehen hizkuntza edo ama-hizkuntza; ia bostetik batek (%18,8, hau da, 456.300 lagun inguru) euskara izan du ama-hizkuntza; eta gutxiengo txikiak (%3,5, hau da, 84.700 lagun inguru) euskara erdararekin batera izan du lehen hizkuntza.


LEHEN HIZKUNTZA. EUSKAL HERRIA (%)



Euskal Herriko hiru lurraldeetan lehen hizkuntza erdara izan dutenak nagusi dira: %89,8 Nafarroan, %75,8 Euskal Autonomi Elkarteetan eta %68,5 Iparraldean.

Iparraldeko biztanleriaren %26,4k dute euskara lehen hizkuntza, %20,5ek Euskal Autonomi Elkarteetan eta %8,3k Nafarroan.

## LEHEN HIZKUNTZA LURRALDEKA (%)



## LEHEN HIZKUNTZA LURRALDEKA

LEHEN HIZKUNTZA	EUSKAL HERRIA		LURRALDEKA					
			EAE		NAFARROA		IPARRALDEA	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Guztira	2.428.100	100,0	1.778.500	100,0	437.200	100,0	212.400	100,0
Euskara	456.300	18,8	363.800	20,5	36.400	8,3	56.100	26,4
Biak	84.700	3,5	65.800	3,7	8.000	1,8	11.000	5,2
Erdara	1.887.100	77,7	1.348.900	75,8	392.800	89,8	145.400	68,5

## Lehen hizkuntza adinaren arabera

Euskal Autonomi Elkartearen eta Nafarroan euskara lehen hizkuntza gisa jasaten ari zen galera gelditu egin da. Iparraldean, berriz, galerak jarraitu egiten du

**E**uskal Herri osoa kontuan hartuta, adinak behera egin ahala, euskara lehen hizkuntza izan dutenen artean handia da euskararen galera: 64 urtetik gorakoen artean %28 izatetik 25-34 urtekoen artean %14 izatera jaitsi da. Adin horretatik behera, gazteen artean (16-24 urte) euskararen galera lehen hizkuntza bezala gelditu egiten da eta, aldi berean, gora egiten du euskararen eta erdararen (biak batera) transmisioak.


Hala ere, baieztapen honek ñabardurak ditu bere baitan, aldi berean oso errealitate eta joera anitzak ematen direlako:

- 16 urte eta gehiagoko biztanleria kontuan hartu denez gero, Nafarroan eta, batik bat, Euskal Autonomi Elkartearen, azken urteotan lehen hizkuntza euskara izan dutenen etengabeko jaitsiera gelditu egin dela antzematen da. Iparraldean, aitzitik, galera-prozesu horrek oraindik jarraitzen du.

- Gainera, inkestaturen 16 urtetik beherako seme-alaben ama-hizkuntzari buruzko informazioa jaso dugunez, esan daiteke EAEn lehen hizkuntza euskara izan dutenen galera gelditu ezezik, euskararen familia bidezko transmisioa nabarmen hazi ere egin dela. Nafarroan jasotako datuetan ere berreskurapen hori antzematen da, baina EAEn baino txikiagoa da. Iparraldean, aldiz, galera gelditu beharrean areagotu egin da eta lehen hizkuntza euskara izan duten 16 urtetik beherako gazteen portzentaiak behera egin du nabarmen, %6ra hain zuzen.



## LEHEN HIZKUNTZA ADIN-TALDEAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA (%)




Iturria: 1996ko soziolinguistikako inkesta

## LEHEN HIZKUNTZA ADIN-TALDEAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA (%)

LEHEN HIZKUNTZA	EUSKAL HERRIA	ADIN-TALDEAK					
		≥ 65 1931 edo lehenago	50 - 64 1932 - 1946	35 - 49 1947 - 1961	25 - 34 1962 - 1971	16 - 24 1972 - 1980	3 - 15 1981 - 1993
Guztira	100	100	100	100	100	100	100
Euskara	19	28	20	18	14	14	18
Biak	3	3	2	3	5	5	8
Erdara	78	68	78	80	81	81	75

## LEHEN HIZKUNTZA ADIN-TALDEAREN ARABERA ETA LURRALDEKA (%)



LEHEN HIZKUNTZA		ADIN-TALDEAK					
		≥ 65 1931 edo lehenago	50 - 64 1932 - 1946	35 - 49 1947 - 1961	25 - 34 1962 - 1971	16 - 24 1972 - 1980	3 - 15 1981 - 1993
<b>EUSKAL A. E.</b>	100	100	100	100	100	100	100
Euskara	20	31	21	19	16	17	22
Biak	4	4	2	3	5	5	8
Erdara	76	65	77	78	79	78	70
<b>NAFARROA</b>	100	100	100	100	100	100	100
Euskara	8	11	9	9	6	6	8
Biak	2	2	4	1	2	1	4
Erdara	90	87	87	90	92	93	88
<b>IPARRALDEA</b>	100	100	100	100	100	100	100
Euskara	26	38	31	26	16	11	6
Biak	5	2	3	5	7	10	14
Erdara	68	60	65	69	77	79	80

## Lehen hizkuntza gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera

Hizkuntzaren transmisioa gurasoen hizkuntza-gaitasunarekin zuzen-zuzenean egon da lotuta: aitak eta amak euskaraz zekitenean, %80k euskara bakarrik transmititu diete seme-alabei

**G**aur egun hizkuntzaren familia bidezko transmisioan ez da ia galerarik gertatzen, Iparraldean izan ezik.

Aitak eta amak euskaraz zekitenean, %80k euskara bakarrik transmititu diete seme-alabei, %8k biak (euskara eta erdara) eta %12k erdara.

Biek euskara jakin beharrean, batek bakarrik

zekitenean, euskararen transmisioa askoz txikiagoa izan da: %17k euskara eta %17k biak (euskara eta erdara); hala ere, desberdintasun esanguratsuak ageri dira amak ala aitak dakien aintzat hartzen badugu:

Amak euskaraz dakienean eta aitak ez, %21ek euskara transmititu dute.


Alderantziz denean, aldiz, portzentaia ia erdira jaisten da (%13).

### LEHEN HIZKUNTZA GURASOEN HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA (%)

LEHEN HIZKUNTZA	EUSKAL HERRIA	GURASOEN BA AL DAKITE EUSKARAZ?		
		Biek	Bietako batek	Ez dakite
Guztira	100	100	100	100
Euskara	19	80	17	0
Biak	3	8	17	0
Erdara	78	12	66	99

Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta


## LEHEN HIZKUNTZA GURASOEN HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA (%)



**Oharra:** zutabeen lodierak talde bakoitzak inkestatutako biztanleria osoarekiko duen pisua adierazten du

Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta


## LEHEN HIZKUNTZA GURASOEN HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA ETA LURRALDEKA (%)



Datuak aldatu egiten dira lurralde batetik bestera; horrela, euskararen transmisioa handiagoa da Euskal Autonomi Elkartean, Nafarroan eta Iparraldean baino.

Horrenbestez, amak eta aitak euskaraz zekitenean, Euskal Autonomi Elkartean %83k euskara transmititu diete seme-alabei eta %8k euskara eta erdara, aldi berean. Iparraldean eta Nafarroan, berriz, portzentaiak ondokoak dira: %72 - %11 eta %65 - %7 hurrenez hurren.

## LEHEN HIZKUNTZA 3-15 URTE BITARTEKO SEME-ALABAK DITUZTEN GURASOEN HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA ETA LURRALDEKA (%)



Dena den, azken urteotako euskararen familia bidezko transmisioa aztertuz gero (inkestaturen 16 urtetik beherako seme-alaben ama-hizkuntzan oinarrituta), Euskal Autonomi Erkatean eta Nafarroan euskararen transmisioan ia galerarik ez dela gertatzen egiaztatzen da. Iparraldean, aldiz, galera-prozesua oso garrantzitsua da oraindik.

Euskal Autonomi Erkatean eta Nafarroan, amak eta aitak, biek, dakitenean, euskararen

transmisioan ia ez da galerarik antzematen 16 urtetik beherakoan artean, %0 eta %2 hurrenez hurren. Gainera, galera hau ikaragarri gutxitu da gurasoetako batek bakarrik dakienean, 15 urtetik gorakoan artean, %63tik %12ra jaitsi da EAEn eta %72tik %20ra Nafarroan.

Hala ere, Iparraldean galera %24koa da biek dakitenean eta %56koa bietako batek besterik ez dakienean. Bestalde, euskara transmititzen denean, gero eta gehiago transmititzen da frantsesarekin batera.

## Talde desberdinen ezaugarriak lehen hizkuntzaren arabera

**Lehen hizkuntza euskara** izan dutenek oso profil berezia dute eta ondoko ezaugarriok dituzte:

- Euskal Herrian jaio dira eta guraso euskaldunak dituzte.
- Familia eta gertuko komunitatea euskaldunak dituzte nagusiki.
- Euskararekiko interes handia dute eta euskara sustatzearen aldekoak dira.

Gainera, ondoko ezaugarri hauek ere baitituzte, neurri txikiagoan bada ere:

- 25.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi dira, batik bat.
- Adinari dagokionez, biztanleria osoaren batezbestekoa baino zertxobait zaharragoak dira.

Azkenik, hizkuntza-gaitasunari dagokionez, %90ek euskaraz ongi edo nahikoa ongi hitz egiten dute, %6k zertxobait eta %4k hitz batzuk.

**Euskararekin batera ama-hizkuntza erdara** izan dutenek ama-hizkuntza euskara soilik izan dutenen ezaugarri asko dituzte, gehiengoaren kasua ez bada ere. Horrenbestez:

- Euskal Herrian jaio dira, baina erdiak baino ez ditu aita eta ama (biak) euskaldunak.
- Familia eta gertuko komunitatea partzialki euskaldunak dira.

- Euskararekiko interesa dute eta euskara sustatzearen alde daude.

Ezaugarri zehatzagoak kontuan izanik:

- Adinari dagokionez, biztanleria osoaren batezbestekoa baino gazteagoak dira.
- Gazteagoak direnez gero, ikasketa-maila batezbestekoa baino askoz ere handiagoa da, eta handiagoa ere ikasleen eta ikasketak euskaraz egin dituztenen portzentaia.
- Herenak hezkuntza-sistemaz kanpo ikasi du euskara.

Hizkuntza-gaitasunari dagokionez, %51k euskaraz ongi edo nahikoa ongi hitz egiten dute, %28k zertxobait eta %20k hitz batzuk.

**Ama-hizkuntza erdara** izan dutenak Euskal Herriko biztanleen %78 direnez biztanleria osoaren ezaugarrietatik ez dira asko bereizten. Hala ere, badira ezaugarri batzuk ama-hizkuntza euskara edo euskara eta erdara batera izan dutenengandik garbi bereizten dituztenak:

- Gurasoek ez zekiten euskaraz hitz egiten.
- Herena etorkina da eta ia beste heren bat etorkinen seme edo alaba.
- Familia eta gertuko komunitatea batez ere erdaldunak dira.
- Gehienak 25.000 biztanletik gorako udalerrietan bizi dira.
- Gutxiengo garrantzitsua, laurdena hain zuzen ere, euskara sustatzearen aurka dago.

Hizkuntza-gaitasunari dagokionez, %5ek euskaraz ongi edo nahikoa ongi hitz egiten dute, %13k zertxobait eta %82k hitz batzuk.

## 2 HIZKUNTZA-BILAKAERA




### Euskara ikasi dutenak gehiago dira galdu dutenak baino

**A**ma-hizkuntza euskara izan dutenek gaztelania edo frantsesa ikasi dute eta gutxiengo batek (%16) guztiz edo partez galdu du bere lehen hizkuntza. Bestalde, lehen hizkuntza gaztelania edo frantsesa izan dituztenen artean %5ek bakarrik ikasi dute euskara, eta azken hauen artean inork ez du bere lehen hizkuntza galdu.

Hala ere, gehiago dira euskara ikasi dutenak galdu dutenak baino. Ama-hizkuntza erdara izanik euskara ikasi dutenak, 92.800 lagun inguru (Euskal Herriko 15 urtetik gorako biztanleriaren %3,8), gehixeago dira ama-hizkuntza euskara edo euskara eta erdara izanik euskara guztiz edo partzialki galdu dutenak baino, 87.300 lagun (%3,6). Bestalde, ama-hizkuntza erdara zuten 253.200 lagun inguruk (%10,4) zertxobait ikasi dute euskara.

### EUSKARAREN GALERA-IRABAZIAK. EUSKAL HERRIA (%)



Euskaldundu direnen kopurua, oro har, euskara galdu dutenena baino handiagoa bada ere, galera honek jarraitu egiten du eta garrantzi handia du ikuspuntu kualitatibotik, are gehiago, hiru lurraldeetako balantzea desberdina dela kontuan hartzen bada:

Euskal Autonomi Elkartearen askoz gehiago dira euskara ikasi dutenak, 81.400 lagun (%4,6), galdu dutenak baino, 62.700 lagun (%3,5).

Nafarroan, aldiz, gehixeago dira euskara galdu dutenak, 11.600 lagun (%2,6), ikasi dutenak baino, 9.200 (%2,1).

Eta Iparraldean, balantzea samingarria da, izan ere, galerak, 13.000 lagun (%6,1), irabaziak baino sei aldiz handiagoak dira, 2.200 lagun (%1).





## Euskararen galera-irabaziak adinaren arabera

**Iparraldean izan ezik, gazteen artean euskararen galera desagertzen ari da eta irabaziak nabarmen hazi dira. Iparraldean gero eta handiagoa da galera eta ia ez dago irabazirik**

**A**urreko atalean aztertutako galerei eta irabaziei buruzko informazioa belaualdi desberdinetako batezbestekoari dagokio eta mende hasiera eta hirurogeita hamarreko hamarkadaren amaiera bitartean jaiotakoak biltzen ditu. Ondorioz, oso egoera desberdinak estali eta izkututzen dira.

Euskal Autonomi Elkartearen, lehen hizkuntza euskara izan dutenen artean, euskara guztiz edo partez galdu dutenek behera egiten dute adinak behera egin ahala; 64 urtetik gorakoen artean (1932 baino lehen jaiotakoak) %7,2tik 16-24 urte dituztenen artean (hirurogeita hamarreko hamarkadan jaiotakoak) %1,7ra.

Euskararen galera gelditzearekin batera, lehen hizkuntza erdara izan dutenen artean asko izan dira euskara ikasi dutenak. 64 urtetik gorakoen artean ia ez dago irabazirik, %0,8, baina 25-34 urte dituztenen artean (hirurogeiko hamarkadan jaiotakoak) irabaziak %6,4 dira eta 16-24 urteko adin-taldean (hirurogeita hamarreko hamarkadan jaiotakoak) %12,4.


Horrenbestez, 16-24 urtekoen artean saldoa argigarria da, galerak %1,7koa diren bitartean, irabaziak %12,4koak dira. Gainera, %31,5 partzialki euskaldundu dira (zertxobait hitz egiten dute). Joera hauek sendotu egiten dira 16 urtetik beherako gazteen artean (1980az geroztik jaiotakoak). Gazte hauei buruz zuzeneko informaziorik ez badugu ere (informazioa gurasoek ematen dute), galerek behera eta irabaziek ia progresio geometrikoan gora egiten dutela antzeman daiteke.

Nafarroan Euskal Autonomi Elkarteko joera bera ematen da, balio absolutuetan neurri txikiagoan bada ere. 64 urtetik gorakoen artean galerak %3,3koak dira eta 16-24 adin-taldean %0,6ra jaisten dira; irabaziak, berriz, %0,3tik %4,2ra hazi dira.

Iparraldean, aldiz, alderantzizko joera nagusitzen da. Galerek ikusgarri egin dute gora eta ia ez dago irabazirik.

64 urtetik gorakoen artean galerak %3,8koak dira eta 25-34 urte dituztenen artean (hirurogeiko hamarkadan jaiotakoak) %10,3koak; 16-24 urtekoen artean, berriz, %10,5ekoak dira. %10etik gorako galera horren garrantzia, berez handia izanik, areagotu egiten da familia bidezko transmisioan %50eko galera ematen dela kontuan hartzen badugu.

## EUSKARAREN GALERA-IRABAZIAK ADIN-TALDEAREN ARABERA ETA LURRALDEKA (%)



## EUSKARAREN GALERA-IRABAZIAK LURRALDEKA

	EUSKAL HERRIA		EAE		NAFARROA		IPARRALDEA	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
<b>Guztira</b>	2.428.100	100	1.778.500	100	437.200	100	212.400	100
<b>Lehen hizkuntza euskara</b>								
ongi hitz egiten du eusk.	453.600	18,7	366.800	20,6	32.800	7,5	54.000	25,4
zertxobait hitz egiten du ez du euskaraz hitz egiten	50.900	2,1	38.000	2,1	5.500	1,2	7.400	3,5
	36.400	1,5	24.700	1,4	6.100	1,4	5.600	2,6
<b>Lehen hizkuntza erdara</b>								
ongi hitz egiten du eusk.	92.800	3,8	81.400	4,6	9.200	2,1	2.200	1,0
zertxobait hitz egiten du ez du euskaraz hitz egiten	253.200	10,4	212.100	11,9	33.800	7,7	7.400	3,5
	1.541.100	63,5	1.055.500	59,3	349.800	80,0	135.800	64,0

## Euskara galdu edo ikasi dutenen ezaugarriak

**E**uskara guztiz edo partzialki galdu duten pertsonak, besteak beste, honako ezaugarri hauek dituzte:

- Erdiak lehen hizkuntza euskara eta erdara batera izan ditu.
- Erdiak familia eta gertuko komunitatea erdaldunak ditu gehienbat.
- Erdiak baino zertxobait gehiagok euskararekiko interesa du eta euskara sustatzearen alde dago.

Hizkuntza-gaitasunari dagokionez, %58k partez galdu dute euskara (zertxobait hitz egiten dute) eta %42k guztiz (hitz batzuk).

**Ama-hizkuntza erdara izanik, euskara ikasi dutenak** gazteak dira oro har. Hain zuzen ere, %72 16 eta 35 urte bitartean daude. Gehienek euskara eskolaz kanpo ikasi dute eta gazteenek hezkuntza-sistemaren bitartez.

Honako ezaugarriok ere hartu behar dira kontuan:

- Euskal Herrian jaio dira, baina ama edo aita etorkina dute.
- Familia eta gertuko komunitatea partzialki baino ez dira euskaldunak.
- Euskararekiko interes handia dute eta euskara sustatzearen alde daude.
- Ikasketa-maila batezbestekoa baino askoz ere handiagoa da eta lan egiten dutenen artean herenak administrazioan, osasun-arloan eta irakaskuntza publikoan egiten du lan.



# 3 HIZKUNTZA-GAITASUNA



## 3 1 Biztanleria hizkuntza-gaitasunaren arabera

Lau hiritarretik bat elebiduna da Iparraldean (%25,7) eta Euskal Autonomi Elkartearen (%24,7); Nafarroan, berriz, proportzio hori hamarretik batera (%9,4) jaisten da

**L**ehen bi ataletan ama-hizkuntzaren araberako hiru taldeak aztertu ditugu (ama-hizkuntza euskara izan dutenak, euskara eta erdara, batera, izan dituztenak, eta erdara izan dutenak), baita ere zenbateraino galdu edo eutsi dioten ama-hizkuntzari eta zein neurritan ikasi duten Euskal Herriko beste hizkuntza.

Atal honetan Euskal Herriaren "erradiografia" gaurkotua egiten saiatu gara, euskararen eta erdararen (gaztelania edo frantsesa) ezagutzari dagokionez.

Hizkuntza-gaitasunaren azterketarako lau hiztun-talde bereizi dira, ukipenean dauden bi hizkuntzetan duten gaitasun erlatiboaren arabera:

**Euskaldun elebakarrak:** "ongi" hitz egiten dute euskaraz eta ez dute erdaraz "ongi" hitz egiten. Euskal Herriko biztanleen %0,5 dira, kopuru absolutuetan 12.400 lagun inguru.

**Elebidunak:** "ongi" edo "nahikoa ongi" moldatzen dira euskaraz zein erdaraz. Talde honek biztanleriaren %22 hartzen du, 534.100 lagun inguru.

**Elebidun hartzaileak:** euskaraz "zertxobait" hitz egiten dakite edo, hitz egiten ez badute ere, "ongi" edo "nahikoa ongi" ulertzen edo irakurtzen dute. Biztanleriaren %14,5 dira, 352.900 lagun inguru.


**Erdaldun elebakarrak:** gaztelaniaz edo frantsesez baino ez dakite hitz egiten. Biztanleriaren %63 dira, 1.528.700 lagun inguru.



Elebidunak, halaber, hiru azpitaldetan bereiz daitezke, euskaraz edo erdaraz hitz egiteko duten erraztasunaren arabera:

- Euskal elebidunak: erdaraz baino errazago hitz egiten dute euskaraz (elebidunen %29,9 dira, 159.600 lagun inguru).
- Elebidun orekatuak: antzera hitz egiten dute euskaraz zein erdaraz (elebidunen %32,1 dira, 171.500 lagun inguru).
- Erdal elebidunak: euskaraz baino errazago egiten dute erdaraz (elebidunen %38 dira, 203.000 lagun inguru).

## HIZKUNTZA-GAITASUNA. EUSKAL HERRIA (%)



Erdaldun elebakarrak nagusi dira hiru lurraldeetan, baina desberdintasun nabariekin: Nafarroan %80,6 dira, Iparraldean %64,2 eta Euskal Autonomi Elkartearen %58,5.

Lau hiritarretik bat elebiduna da Iparraldean (%25,7) eta Euskal Autonomi Elkartearen (%24,7); Nafarroan, berriz, proportzio hori hamarretik batera (%9,4) jaisten da.

Elebidun hartzaileak %16,3 dira Euskal Autonomi Elkartearen eta biztanleriaren ia hamarren bat Nafarroan (%9,8) eta Iparraldean (%9,3).

Euskaldun elebakarrak ez dira biztanleriaren %1era heltzen hiru lurraldeetan.

Emitza hauek 1991ko soziolinguistikazko inkestan jasotakoekin erkatuz gero, ondorio nagusiak honakoak dira:


- Euskaldun elebakarrak erdira jaitsi dira, 23.500 lagunetik 12.400era hain zuzen ere.
- Euskal Autonomi Elkartearen, 15 urtetik gorako 35.000 elebidun gehiago daude (1991 urtean 401.500 lagun eta 1996an 438.400).
- Nafarroan 3.500 elebidun gehiago daude, 37.500 lagun ziren 1991n eta 41.000 lagun 1996an.
- Iparraldean, berriz, elebidunen kopuruak 6.000 lagun baino gehiago galdu ditu.

## HIZKUNTZA-GAITASUNA LURRALDEKA

	EUSKAL HERRIA		EAE		NAFARROA		IPARRALDEA	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Guztira	2.428.100	100	1.778.500	100	437.200	100	212.400	100
Euskaldun elebakarrak	12.400	0,5	9.800	0,6	1.100	0,2	1.500	0,7
Elebidunak	534.100	22,0	438.400	24,7	41.000	9,4	54.700	25,7
Euskal elebidunak	159.600	29,9	128.500	29,3	13.400	32,7	17.600	32,2
Elebidun orekatuak	171.500	32,1	141.700	32,3	11.800	28,9	18.000	33,0
Erdal elebidunak	203.000	38,0	168.200	38,4	15.800	38,4	19.000	34,8
Elebidun hartzaileak	352.900	14,5	290.200	16,3	42.800	9,8	19.800	9,3
Erdaldun elebakarrak	1.528.700	63,0	1.040.000	58,5	352.300	80,6	136.400	64,2

Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta

## HIZKUNTZA-GAITASUNA LURRALDEKA (%)



## Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera

Euskara biziki eta etengabe ari da berreskuratzen Euskal Autonomi Elkartearen eta askoz ere motelago Nafarroan. Iparraldean, berriz, euskararen atzerakada etengabea da

**L**ehenik, hiru lurraldeetan euskaldun elebakarrak zaharrak direla azpimarratu behar da; gehienek 64 urte baino gehiago dutenez, desagertzen ari dira.

### a) Euskal Autonomi Elkartea

Elebidunak %26 dira 64 urtetik gorakoaren artean eta %21era jaisten dira 35-64 urtekoen artean. Gazteenen artean joera aldatu egiten da eta elebidunen portzentaiak gora egiten du, %25 dira 25-34 urtekoen artean (hirurogeiko hamarkadan jaiotakoak) eta %33 16-24 urte bitartean (hirurogeita hamarreko hamarkadan jaiotakoak).

50 urtetik gorakoaren artean elebidun hartzaileak gutxi dira, %6 hain zuzen ere, baina gora egiten dute argi eta garbi gazteenen artean. Izan ere, 25-34 urtekoen artean %27 dira eta 16-24 urtekoen artean %37.

Azkenik, 35 urtetik gorakoaren artean gehienak erdaldun elebakarrak dira, %70 inguru. Gazteenen artean, berriz, erdaldun elebakarrek nabarmen egiten dute behera: 25-34 urtekoen artean %48 dira eta 16-24 urtekoen artean %30.

Horrela, erdaldun elebakarrak gutxitzen ari dira nabarmen gazteen artean, elebidunen eta, bereziki, elebidun hartzaileen hazkundearen ondorioz. Gainera, gurasoen eskutik gazteei buruz jasotako informazioaren arabera, joera hauek finkatu egiten dira 16 urtetik beherakoaren artean.

### b) Nafarroa

Nafarroan ere gora egiten dute elebidunek eta elebidun hartzaileek gazteen artean, baina ez da Euskal Autonomi Elkartearen antzematen den hazkunde-maila lortzen.

Elebidunak %9 dira 25 urtetik gorakoaren artean eta %11 16-24 urte bitartekoetan. Elebidun hartzaileak %4 besterik ez dira 50 urtetik gorakoaren artean eta adin horretatik beherakoaren artean %14 inguru. Erdaldun elebakarrak %86 dira 50 urtetik gorakoaren artean eta %77 adin horretatik beherakoaren artean.

### c) Iparraldea




Iparraldeko joera Euskal Autonomi Elkartearen eta Nafarroan antzemandakoaren alderantzizkoa da. Gazteen artean nabarmen egiten dute behera elebidunek; erdaldun elebarrak, berriz, gora.

64 urtetik gorakoen artean %35 dira elebidun, 50-64 urtekoen artean zertxobait gutxiago, %31 eta 35-49 urtekoen artean %27. Gainera, 35 urtetik beherakoen artean beherakada ikusgarria da; hain zuzen ere,

25-34 urte bitartean elebidunak %14 dira eta 16-24 urte bitartean %11.

Bestalde, erdaldun elebarrak nabarmen egiten dute gora gazteen artean. Izan ere, 35 urtetik gorakoen artean %60 dira eta adin horretatik beherakoen artean %75.

## HIZKUNTZA-GAITASUNA ADINAREN ARABERA ETA LURRALDEKA (%)



## HIZKUNTZA-GAITASUNA ADINAREN ARABERA ETA LURRALDEKA (%)

	ADIN-TALDEAK					
	GUZTIRA	≥ 65 1931 edo lehenago	50 - 64 1932 - 1946	35 - 49 1947 - 1961	25 - 34 1962 - 1971	16 - 24 1972 - 1980
<b>EUSKAL AUTONOMI ELKARTEA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
Euskaldun elebakarrak	1	3	0	0		
Elebidunak	25	26	21	21	25	33
Elebidun hartzaileak	16	5	6	11	27	37
Erdaldun elebakarrak	58	67	73	68	48	30
<b>NAFARROA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
Euskaldun elebakarrak	0	1	0			
Elebidunak	9	9	9	9	9	11
Elebidun hartzaileak	10	3	5	14	14	12
Erdaldun elebakarrak	81	87	86	77	77	77
<b>IPARRALDEA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
Euskaldun elebakarrak	1	2	1			
Elebidunak	26	35	31	27	14	11
Elebidun hartzaileak	9	6	9	9	13	13
Erdaldun elebakarrak	64	56	60	64	73	75

Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta



## Taldeen ezaugarriak hizkuntza-gaitasun desberdinaren arabera

**E**uskaldun elebarrak, hau da, euskaraz baino hitz egiten ez dutenek, ondoko ezaugarriak dituzte:

- Euskal Herrian jaio dira, guraso euskaldunak dituzte eta lehen hizkuntza euskara dute.
- Familia eta gertuko komunitatea euskaldunak dituzte gutziz.
- 50 urtetik gorakoak dira eta gehienek 64 urte baino gehiago dituzte. Ez dute ia ikasketarik, ezta lehen mailakorik ere.
- Gune ez hiritarretan bizi dira nagusiki.
- Euskararekiko interes handia dute eta euskara sustatzearen aldekoak dira.

**Elebidunek**, hau da, euskaraz eta erdaraz hitz egiten dutenek honako ezaugarriak dituzte:

- Euskal Herrian jaio dira eta gehienek guraso euskaldunak dituzte.
- Gehienek lehen hizkuntza euskara izan dute; hala ere, gutxiengo handi samar baten (%17) lehen hizkuntza erdara izan da.
- Familia euskalduna da gehienbat; lagunartea edo lan-eremua, ordea, ez.
- Euskararekiko interes handia dute eta euskara sustatzearen aldekoak dira.
- Gehienak 25.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi diren arren, herena gune hiritar edo erdi-hiritarretan bizi da.

**Elebidun hartzaileen**, hau da, euskaraz zertxobait dakitenen ezaugarri nagusia gazte izatea da. Hirutik bi 35 urtetik beherakoak dira. Gehienek lehen hizkuntza erdara izan dute eta %17k euskara edo biak. Gainera:

- Familia eta gertuko komunitatea erdaldun dira euskaldun baino gehiago.
- Euskararekiko interesa dute eta erdia baino gehiago euskara sustatzearen alde dago.
- Gehienak gune hiritar edo erdi-hiritarretan bizi dira.
- Hamarren bat etorkina da eta herena baino zertxobait gehiago etorkinen seme-alabak dira.
- Ikasketa-maila batezbestekoaren gainera dago.
- Gehienek erdaraz egin dituzte ikasketak eta ia hirutik bi saiatu dira hezkuntza-sistemaz kanpo euskara ikasten.

**Erdaldun elebarrak**, hau da, gaztelaniaz edo frantsesez baino ez dakitenak eta euskara ulertzen ez dutenak, biztanleen %63 dira. Biztanleria osoaren ezaugarriekin bat etorri arren, ondokoek bereizten dituzte:

- Lehen hizkuntza erdara dute.
- Familia eta gertuko komunitatea erdaldunak dira gehienbat.
- Herena etorkina da eta ia beste heren bat etorkinen seme edo alaba.
- Laurdena euskara sustatzearen alde dago, beste laurden bat aurka eta gainerakoek ez dute argi azaltzen ez aldeko ez aurkako jarrerarik.
- Gehienak 25.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan bizi dira.
- Biztanleriaren batezbestekoa baino zaharxeagoak dira.

## **Elebidunen tipologia euskarazko eta erdarazko hizkuntza-gaitasun erlatiboaren arabera**

**Hamar elebidunetik lau (%38) hobeto moldatzen dira gaztelaniaz edo frantsesez euskaraz baino. Erraztasun hori lehen hizkuntzari lotuta dago zuzen-zuzenean**

**A**tal honen hasieran elebidunak hiru taldetan sailkatu ditugu hizkuntza-gaitasun erlatiboaren arabera, hau da, euskaraz edo erdaraz hitz egiteko erraztasunaren arabera. Sailkapen hori garrantzi handikoa da, hiztunek ezagutzen dituzten bi hizkuntzetako bakoitzean duten erraztasunak asko baldintzatzen baitu hizkuntza-aukeraketa, euskararen erabilerari buruzko atalean ikusiko dugun bezala.

Euskal Herrian, oro har, hamar elebidunetik lau (%38) hobeto moldatzen dira gaztelaniaz edo frantsesez euskaraz baino, hirutik batek (%32,1) erraztasun bera du bi hizkuntzetan eta beste horrenbestek (%29,9) errazago egiten du euskaraz.

Lurralde batetik bestera ez dago alde nabarmenik. EAEn Euskal Herrirako

adierazitakoen antzekoak dira emaitzak; Nafarroan, berriz, euskal elebidunen portzentaia handixeagoa da elebidun orekatuen kaltetan, eta Iparraldean, azkenik, elebidunen hiru taldeen kopuruak antzekoak dira.

Adinak behera egin ahala euskal elebidunak gutxitu egiten dira. Joera hori izan arren, lurraldeka aldaketak antzeman daitezke:

Euskal Autonomi Elkartearen, esate baterako, joera hori 25-34 adin-taldera bitartean ematen da. Horrela, euskal elebidunak 65 urtetik gorakoekin artean bitik bat (%49) izatetik hamarretik bat (%12) izatera jaitsi dira 25-34 urtekoekin artean. Hala ere, joera hori 16-24 adin-taldean aldatu egin da. Izan ere, adin-talde horretan, %35en ama-hizkuntza erdara izan arren, bostetik bat (%19) euskal elebiduna da.

Nafarroako bilakaera Euskal Autonomi Elkartearen antzekoa da; euskal elebidunen proportzioak behera egiten du adinarekin, gazteenen artean alderantzizko joera gertatzen den bitartean; hala ere, berreskurapena EAEkoa baino txikiagoa da.

Iparraldean, euskal elebidunak adinarekin batera jaitzen dira eta joera nagusi hori areagotu egiten da gazteenen artean. Izan ere, 16 - 24 urteko elebidunen artean ia inork (%4) ez baitu euskaraz frantsesez baino errazago egiten.

## ELEBIDUNAK ADINAREN ARABERA ETA LURRALDEKA (%)

	ADIN-TALDEAK					
	GUZTIRA	≥ 65 1931 edo lehenago	50 - 64 1932 y 1946	35 - 49 1947 y 1961	25 - 34 1962 y 1971	16 - 24 1972 y 1980
<b>EUSKAL AUTONOMI ELKARTEA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
Elebidunak	25	26	21	21	25	33
Euskal elebidunak	29	49	44	27	12	19
Elebidun orekatuak	32	28	32	34	34	33
Erdal elebidunak	38	23	24	39	54	47
<b>NAFARROA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
Elebidunak	9	9	9	9	9	11
Euskal elebidunak	33	44	49	32	19	21
Elebidun orekatuak	29	32	25	34	25	27
Erdal elebidunak	38	23	25	34	57	52
<b>IPARRALDEA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
Elebidunak	26	35	31	27	14	11
Euskal elebidunak	32	52	38	16	9	4
Elebidun orekatuak	33	29	41	31	36	29
Erdal elebidunak	35	20	20	53	55	67

Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta

3  
5

### Elebidunen hiru taldeen ezaugarriak

**E**lebidun orekatuek aurreko atalean deskribatutako elebidunen antzeko ezaugarriak dituzte.

**Euskal elebidunek**, hau da, euskaraz erdaraz baino errazago egiten dutenek, elebidunek oro har ez dituzten ezaugarriak ere azaltzen dituzte:

- Euskal Herrian jaio dira, guraso euskaldunak dituzte eta lehen hizkuntza euskara dute.
- Ia bi herenek 50 urte baino gehiago dute, hau da, batezbeste elebidunak baino zaharragoak dira.
- Adina dela eta, ikasketa-maila txikiagoa dute, erretiratuen proportzioa handiagoa da eta gehienek hezkuntza-sistemaz kanpo ikasi dute euskara.

- Familia eta lagunartea euskaldunak dira gehienbat, ez horrenbeste lan-eremua.
- Gune nagusiki euskaldunetan eta 25.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi dira.

Bestetik, **erdal elebidunek**, hau da, erdaraz euskaraz baino errazago egiten dutenek, ondoko ezaugarriok dituzte:

- Euskal Herrian jaio arren, ama edo aita baino ez dute euskalduna eta herenak lehen hizkuntza erdara izan du.
- Erdiak 35 urte baino gutxiago du.
- Gehienek euskara ikasi dute.
- Familia eta gertuko komunitatea partzialki baino ez dira euskaldunak.
- Ikasketa-maila handiagoa da eta bi herenek zerbitzu-sektorean eta administrazioan egiten dute lan.
- Ia erdia gune hiritarretan edo erdi-hiritarretan bizi da.

# NORTASUNA ETA EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERAK



## Nortasuna

Euskal Herriko hiritarren erdiak euskal herritartzat eta espainol edo frantsestzat du bere burua.

Euskal herritartzat soilik edo frantses edo espainoltzat soilik dutenak gutxiengoa dira hiru lurraldeetan

**N**ortasunaren ikuspuntutik, hiru lurraldeen, hau da, Euskal Autonomi Elkartearen, Nafarroaren eta Iparraldearen arteko desberdintasunak handiak direla azpimarratu behar da.

Inkestatuei bere burua euskal herritar soilik, espainol edo frantses soilik ala euskal herritar eta espainol edo frantses duen galdetu zaienean erantzuna honako hau izan da: biztanleriaren erdiak baino zerbait gehiagok euskal herritar eta espainol edo

frantsestzat du bere burua bai Iparraldean (%59), bai Euskal Autonomi Elkartearen (%51). Hala ere, bi lurraldeen artean desberdintasun nabarmenak antzematen dira. Euskal Autonomi Elkartearen hiru biztanletik batek (%32) euskal herritartzat soilik du bere burua eta Iparraldean antzeko proportzioak frantsestzat soilik (%30).

Nafarroan oso bestelako joera antzematen da, gehiago dira, gutxigatik bada ere, bere burua espainoltzat soilik dutenak euskal herritar eta espainoltzat dutenak baino (%35 vs. %33). Honez gain, bostetik batek baino

zertxobait gehiagok (%23) euskal herritartzat soilik du bere burua. Dena dela, nortasunari dagokionez, ia denek (%86k) "oso" edo "nahikoa" nafartzat dute bere burua.

Benetako euskal herritar izateko euskaraz hitz egiten jakin behar den galdetu denean, Euskal Autonomi Elkarteke biztanleriaren erdia baino gehiago (%53) ez dago ados eta hirutik bat (%33) ados dago. Nafarroan ere askoz gehiago dira ados ez daudenak ados daudenak baino (%48 vs. %36). Iparraldean, aldiz, gehienek benetako euskal herritarra izateko euskaraz hitz egiten jakin behar dela uste dute (%62 vs. %29).

## Nortasuna oso lotuta dago jatorriarekin eta hizkuntza-gaitasunarekin

Nortasunari dagokionez, hiru lurraldeen arteko desberdintasunak garrantzitsuak badira ere, desberdintasun horiek areagotu egiten dira emaitzak jatorriaren eta hizkuntza-gaitasunaren ikuspuntutik aztertuz gero.

Bertakoen artean, gutxiatik bada ere, bere burua euskal herritartzat soilik dutenak (%45) euskal herritar eta espainol edo frantsesetzat dutenak (%40) baino gehiago dira. Bere burua euskal herritar eta espainol

edo frantsesetzat dutenen portzentaiak gora egiten du aita eta/edo ama etorkina dutenen bertakoen artean (%60), bere burua euskal herritartzat soilik hartzen dutenen kaltetan (%20). Etorkinen artean, era berean, gehienek bere burua euskal herritar eta espainol edo frantsesetzat dute (%57); dena den, etorkinen multzo handi batek (%29) espainol edo frantsesetzat soilik du bere burua.

Hala ere, nortasunari dagozkion desberdintasunik handienak hizkuntza-gaitasunaren arabera dira: hamar elebidunetik zazpik (%71) dute bere burua euskal herritartzat soilik; elebidun hartzaileen artean portzentaia erdira jaisten da (%36) eta bikoiztu euskal herritar eta espainol edo frantsesetzat dutenena (%25etik %55era). Azkenik, erdaldun elebakarren artean bere burua euskal herritartzat soilik dutenak zazpirena dira (%11), euskal herritar eta espainol edo frantsesetzat dutenen portzentaia mantendu egiten da (%56) eta oso egiten du gora bere burua espainol edo frantses soilik dutenen portzentaiak (%22).

Gehiago sakonduz, azpimarragarria da elebidunen artean finkatu egiten dela arestian adierazitako joera: euskara-maila handiagoa denean edo euskara nagusitzen denean, handiagoa da bere burua euskal herritartzat soilik hartzen dutenen portzentaia eta alderantziz; izan ere, erdal elebidunen %62k hartzen dute bere burua euskal herritartzat soilik, elebidun orekatuen %74k eta euskal elebidunen %81ek.

Azkenik, euskaldun gehienek benetan euskaldun izateko euskara hitz egiten jakin behar dela uste dute bitartean (%81ek Nafarroan; %79k Iparraldean eta %73k Euskal Autonomi Elkartearen), erdaldunen erdia baino gehiago ez dago ados baieztapen honekin Euskal Autonomi Elkartearen (%66) zein Nafarroan (%51).

## Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerak

### Euskal Herriko ia bi hiritarretik bat euskara ikasteko eta euskararen erabilera sustatzeko neurriak hartzearen alde dago

**E**uskararen ikaskuntza eta erabilera sustatzeari buruz biztanleriak dituen jarrerak aztertzeko, hainbat alderdi hartu dira kontuan, hala nola: hezkuntza-sisteman, herri-administrazioan edo komunikabideetan euskararen erabilera sustatzeko hartutako neurriei buruzko iritziak, seme-alabak irakasteredu elebidunetara bidaltzeari buruzkoak eta abar.

Nortasunarekin bezala, desberdintasun azpimarragarriak antzematen dira hiru lurraldeen artean, euskara sustatzeko neurriei dagokienez. Hala ere, desberdintasunik garrantzitsuenak jatorriaren eta hizkuntza-gaitasunaren arabera dira.

Orokorrean, aldeko iritzi gehien bildu dituzten neurriak gazteen euskalduntzeari buruzkoak dira (biztanleriaren %63 guztiz edo partzialki ados daude “ezinbestekoa da haur guztiek euskara ikastea” baieztapenarekin), ondoren herri-administrazioan eta komunikabideetan euskara sustatzeari buruzkoak (biztanleriaren %60 guztiz edo partzialki ados daude “Euskal Herriko administrazio publikoan sartzeko beharrezkoa izan beharko litzateke euskara jakitea”

baieztapenarekin eta %42ren iritziak “Euskal Herrian ikusi eta entzuten diren telebista eta irratiek programa askoz gehiago izan beharko lituzkete euskaraz). Bestalde, bi hiritarretik bat ez dago ados “nahiago dut ingelesa ikasi euskara ikasi edo hobetu baino” baieztapenarekin.

Hezkuntza-sisteman seme-alabentzat zein irakasteredu nahi den galdetuta, Euskal Autonomi Elkarteak ia hiritar guztiek (%82) eredu elebiduna edo euskara hutsezkoa aukeratu dute. Iparraldean ia erdiak (%42) elebiduna edo euskara hutsezkoa hautatu du; heren batek baino zerbait gehiagok (%37) frantsesezko irakasteredua eta euskara irakasgai; azkenik, %19k frantses hutsezkoa. Nafarroan egoera Iparraldekoaren antzekoa da, baina bertan gaztelania hutsezko irakaskuntzaren aldeko iritzi gehixeago jaso da.


Euskara sustatzeari buruzko hiritarren iritziak eta jarrerak laburtzeko asmoz, aurreko galderei emandako erantzunen arabera tipologia landu da eta ondoko bost talde hauek bereizi dira:

- Oso aldeko jarrera, biztanleriaren %14.
- Aldeko jarrera, %31.
- Ez aldekoa ez aurkakoa, %37.
- Aurkako jarrera, %15.
- Oso aurkako jarrera, %3.

Hau da, Euskal Herriko ia bi hiritarretik bat euskararen irakaskuntza eta sustapena bultzatzeko neurriak hartzearen alde dago eta bost hiritarretik batek aurkako jarrera adierazten du.



## EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERAK. EUSKAL HERRIA (%)



Euskal Autonomi Elkarteko eta Iparraldeko proportzioak Euskal Herri osoan jasotako en antzekoak dira. Nafarroan, ordea, euskara sustatzearen aurkako jarrera azaltzen dutenen portzentaia askoz handiagoa bada ere (%32), aldeko jarrera adierazten dutenena baino txikiagoa da (%38).

Bestetik, berriro ere egiazta daitezke jarreraren eta portaeren artean dauden desberdintasunak. Izan ere, askoz gehiago dira euskara sustatzearen aldeko jarrera azaltzen dutenak, hezkuntza-sistemaz kanpo euskara ikasten edo hobetzen saiatu direnak baino. Zehazki, hamar pertsonatik hiru besterik ez dira saiatu hezkuntza-sistemaz kanpo euskara ikasten edo hobetzen.


Hala ere, proportzio hori aldatu egiten da jarreraren arabera, gora egiten baitu euskara

sustatzeari buruzko jarrera aldekoagoa den heinean: oso aldeko jarrera dutenen %36 saiatu dira euskara ikasten, aldeko jarrera dutenen %34, ez aldeko ez aurkako jarrera dutenen %25, aurka daudenen %15 eta oso aurka daudenen %14.

Euskara ikasteko arrazoen artean ondokoak ditugu: "Euskal Herriaren hizkuntza delako" (%31), "nire erro kulturalak berreskuratzeko" (%17), "lanerako behar dudalako" (%17) eta "euskaraz dakitenekin harremanetan izateko" (%13).

Edonola ere, interesgarria da euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren arabera desberdintasunei behatzea. Euskara ikasteko arrazoen artean, politikoak eta kulturalak nabarmentzen dira euskara sustatzearen aldekoen artean, eta aurka daudenen artean, ostera, lan egiteko beharra.

## EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERAK LURRALDEKA (%)



## EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERAK LURRALDEKA. (%)

JARRERA	EUSKAL HERRIA	LURRALDEA		
		EAE	NAFARROA	IPARRALDEA
Oso aldekoa	14	14	13	11
Aldekoa	31	32	25	38
Ez aldekoa, ez aurkakoa	37	38	30	39
Aurkakoa	15	14	22	12
Oso aurkakoa	3	2	10	1

## Euskararen aldeko eta kontrako jarrerak dituztenen ezaugarriak

**E**uskararen erabilera sustatzearen **aldeko jarrera** dutenek ez dute profil guztiz berezia, zenbait ezaugarri amankomun izan arren:

- Ia erdia euskalduna da.
- Gehienek euskararekiko interesa dute eta seme-alabak hezkuntza-eredu elebidunetara edo euskara nagusi den erduetara bidaltzen dituzte edo bidaliko lituzkete, seme-alabarik izanez gero. Gainera, herenak hezkuntza-sistemaz kanpo ikasi du euskara.
- Gehienak Euskal Herrian jaio dira eta etorkinen edo etorkinen seme-alaben kopurua esanguratsua da.
- Erdiak familia eta gertuko komunitatea nagusiki euskaldunak ditu.

Euskararen erabilera sustatzearen **aurkako jarrera** dutenek talde homogeenagoa osatzen dute. Honako ezaugarri hauek dituzte:

- Erdaldunak dira eta familia eta gertuko komunitatea erdaldunak dituzte gehienbat. Nagusiki hiri-guneetan bizi dira.

- Ez dute euskararekiko inolako interesik edo oso interes txikia dute; dena den, herenak seme-alabak hezkuntza-eredu elebidunetan edo euskara nagusi den erduetan sartzen ditu edo sartuko lituzke, seme-alabarik izanez gero.
- Erdia baino gehiago etorkina edo etorkinen seme edo alaba da.

Azkenik, jarrera neutrala **–ez aldekoa, ez aurkakoa–** azaltzen dutenek aurkako jarrera azaltzen dutenen antzeko profila dute:

- Erdaldunak dira eta familia eta gertuko komunitatea erdaldunak dituzte gehienbat. Nagusiki hiri-guneetan bizi dira.
- Erdia baino gehiago etorkina edo etorkinen seme edo alaba da.

Hala ere:

- Euskararekiko interes handiagoa dute eta bi herenek seme-alabak hezkuntza-eredu elebidunetan edo euskara nagusi den erduetan sartzen dituzte edo sartuko lituzkete, seme-alabarik izanez gero.





**A**urreko ataletan Euskal Herriko 15 urtetik gorako biztanleria osoa hartu da kontuan. Hemendik aurrera, ordea, euskaldunak soilik hartuko dira aintzat, hau da, euskaldun elebakarrak eta elebidunak, euskara erabiltzeko moduan menperatzen dutenak, alegia. Horrenbestez, aurrerantzean elebidun hartzaileak eta erdaldun elebakarrak azterketaz kanpo geratuko direnez gero, emango diren datuak biztanleriaren %22,5i buruzkoak izango dira.

## **Euskararen erabilera eremuka**

**E**uskararen erabilera aztertzeko ondoko eremuak hartu dira kontuan:


- Familia, hau da, amarekin, aitarekin, bikotekidearekin eta seme-alabekin zein hizkuntzatan hitz egiten den eta etxean denak daudenean erabiltzen den hizkuntza.

- Etxetik kanpoko gertuko komunitatea, hots, lagunartea, eguneroko erosketetako saltzaileak, merkatua, apaiza eta lankideak.
- Erabilera-eremurik formalenak, hau da, bankua, udala, seme-alaben irakasleak eta osasun-zerbitzuak.

## **Familian, gertuko komunitatean eta zenbait eremu formaletan euskaldunek euskara gehiago erabiltzen dute erdara baino**

Hurrengo irudian ikus daitekeenez, aztertutako erabilera-eremu gehienetan euskaldunen erdiak gutxi gora-behera nagusiki euskaraz hitz egiten du. Egoeraren arabera, berriz, %10-%20k euskaraz erdaraz hainbat hitz egiten dute eta gainerakoek, %20-%40k, nagusiki erdaraz.

## EUSKARAREN ERABILERA EREMUKA. EUSKAL HERRIA (%) (EUSKALDUNAK, 1996)



Familian, seme-alabekin euskara erabiltzen da gehienbat. Hiru euskaldunetik bik (%67) nagusiki euskaraz hitz egiten dute seme-alabekin. Gainerako kideekin, euskaraz erdaraz baino gehiago hitz egiten bada ere, behera egiten du proportzioak. Nagusiki bitik batek euskaraz hitz egiten du amarekin (%56), aitarekin (%52) eta senarrarekin edo emaztearekin (%50), eta hamarretik batek euskaraz erdaraz hainbat.

Etartetik kanpoko gertuko komunitatean, euskara nagusi da erabilera-eremurik tradizionalenetan. Lau euskaldunetik hiruk nagusiki euskaraz hitz egiten dute azokan (%77) eta apaizarekin (%72); lagunartean

gehiago hitz egiten da euskaraz erdaraz baino, bitik batek nagusiki euskaraz egiten du (%49) eta bostetik batek (%20) batean bestean hainbat. Lankideekin eta dendariekin bi hizkuntzen erabilera orekatu egiten da, %44k nagusiki euskaraz hitz egiten dute eta %40k nagusiki erdaraz.

Erabilera-eremurik formalenetan euskaldun gehienek (%78) nagusiki euskaraz hitz egiten dute seme-alaben irakasleekin; gehiago erabiltzen dute euskara erdaraz baino udal-funtzionarioekin eta banku edo aurrezki-kutxetako langileekin, bitik batek nagusiki euskaraz egiten du eta seitik batek euskaraz erdaraz hainbat. Bestalde, osasun-zerbitzuetako langileekin erdaraz nagusi da, nahiz eta hirutik batek (%30) nagusiki euskara erabili.

## Azken bost urteotan euskararen erabilera nabarmen hazi da seme-alabekin, lagunartean, lankideekin eta erabilera-eremurik formalenetan


1991n egindako I. Soziolinguistikazko Inkestaren emaitzekin erkatuz gero, euskararen erabilera gorakada adierazgarria izan da, zenbait eremutan bereziki, bost urte besterik igaro ez diren arren.

Familian, euskararen erabilera gora egin du seme-alabekin (nagusiki euskaraz mintzatzen direnen portzentaia sei puntu hazi da); senar-emazteen arteko proportzioa mantendu eta gurasoekin bost puntu jaitsi da. Gurasoekiko harremanetan eman den galera laginean azken bost urteetan sartu diren 16-20 urteko gazteen belaunaldiak eragin du. Izan ere, gazte hauen ia erdiak -gaur egungo euskaldunen %6 inguruk- guraso erdaldunak dituzenez gero, harremanok erdaraz gauzatzen dira ezinbestean.

Familiatik kanpo, lagunartean eta lankideekin euskararen erabilera sei puntu hazi da, eta zortzi edo gehiago eremurik formalenetan: udaletxean, bankuan, osasun-zerbitzuetan eta seme-alaben irakasleekin.

Laburbilduz, euskararen erabilera egonkortu egin da familian (seme-alabekin baino ez da hazi) eta gora egin du familiatik urrundu ahala.

### EUSKARAREN ERABILERA EREMUKA. EUSKAL HERRIA (%) (EUSKALDUNAK, 1991)



## Euskararen erabilera lurraldeka

Euskal Autonomi Elkartearen eta Nafarroan, euskaldunek, oro har, euskara erdara baino gehiago erabiltzen dute. Iparraldean, berriz, erabilera-eremurik tradizionalenetan (gurasoekin, apaizarekin eta merkatuan) bakarrik erabiltzen da euskara erdara baino gehiago

**E**uskaldunen %82 Euskal Autonomi Elkartearen bizi direnez gero, lurralde honi dagozkion euskararen erabilera buruzko datuak Euskal Herri osorako adierazitakoen antzekoak dira. Hala ere, erabilera zerbait handiagoa da seme-alabekin eta erabilera-eremurik formalenetan:

udaletxean, bankuetan, dendetan, osasun-zerbitzuetan eta seme-alaben irakasleekin.

Nafarroan erabilera txikixeagoa da, batezbeste hiru edo lau puntu azpitik; alabaina, gaztelania baino gehiago erabiltzen da oraindik ere. Zenbait eremutan, lagunartean edo lankideekin, esate baterako, euskararen erabilera Euskal Autonomi Elkartearen baino handixeagoa da.


Iparraldean euskararen erabilera nabarmen egin du behera eta, erabilera-eremurik tradizionalenetan izan ezik, frantsesa da euskaldunek gehien erabiltzen duten hizkuntza.

Familian, gurasoekin euskaraz frantsesez baino gehiago egiten da, Euskal Herri osorako portzentaien antzera. Senar-emazteei dagokienez, oreka dago bi hizkuntzen artean.


Seme-alabekin, berriz, frantsesa da nagusi, hiru euskaldunetik batek (%37) bakarrik hitz egiten baitu nagusiki euskaraz seme-alabekin. Hau da, gurasoekin oraindik euskaraz hitz egiten den bitartean, seme-alabekin gero eta gutxiago. Euskal Autonomi Elkartearen eta Nafarroako joeratik nabarmen aldentzen dira, beraz, datu hauek.

Familiatik kanpo, erabilera-eremurik tradizionalenetan, merkatuan eta apaizarekin, euskara da nagusi oraindik; lagunartean oraindik euskara gehixeago erabiltzen da frantsesa baino. Gainerako eremuetan, aldiz, frantsesa da nagusi, bereziki eremurik formalenetan.


### EUSKARAREN ERABILERA EREMUKA. EUSKAL AUTONOMI ELKARTEA (%) (EUSKALDUNAK, 1996)



## EUSKARAREN ERABILERA EREMUKA. NAFARROA (%) (EUSKALDUNAK, 1996)



## EUSKARAREN ERABILERA EREMUKA. IPARRALDEA (%) (EUSKALDUNAK, 1996)





## Euskararen erabileran eragiten duten faktoreak

Norberaren harreman-sareko euskaldunen dentsitatea eta hizkuntza-gaitasun erlatiboa funtsezko faktoreak dira euskararen erabileran

**1** 1991n egindako I. Soziolinguistikazko Inkestan, euskararen erabilera familian, lagunartean eta lanean eragiten duten faktoreen azterketa sakona egin zen. Aurten egindako azterketek berretsi egiten dituzte 1991ko ondorioak.

Euskararen erabileran bereziki eragiten duten faktoreak honako hauek dira:

- Faktore sozioestrukturalak, hau da, euskaldunen dentsitatea etxean,


lagunartean edo lanean, gune soziolinguistikoarekin batera.

- Faktore psikolinguistikoak, hizkuntza-gaitasun erlatiboa, hau da, euskaraz edo erdaraz aritzeko erraztasun handiagoa edo txikiagoa.

Irudiak etxeko eta lagunarteko erabileraren batezbesteko balioak azaltzen ditu, tokian-tokiko euskaldunen dentsitatearen arabera. Bertan, euskararen erabileran dentsitateak duen eragin erabakiorra antzeman daiteke.

Etxean edo lagunartean denek euskaraz dakitenean, nagusiki euskaraz hitz egiten da. Hala ere, nahikoa da eremu horietan norbaitek euskaraz ez jakitea etxean nagusiki erdaraz egiteko eta lagunartean euskaraz erdaraz hainbat. Harreman-sarearen eragina etxean lagunartean baino handiagoa denez gero, euskaldunen dentsitateak behera egiten duen neurrian, euskararen erabilerak beherakada handiagoa du familian lagunartean baino.

### HIZKUNTZA-ERABILERA EUSKALDUNEN DENTSITATEAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA (EUSKALDUNAK, 1996)




Zalantzarik gabe, esan daiteke norberaren harreman sareko euskaldunen dentsitatean gutxieneko maila edo atalasea dagoela. Gutxieneko maila horren azpitik ez da euskararen erabilera bermatzen. Etxean, maila hori argia da, denek jakin behar baitute euskaraz. Nahikoa da batek ez jakitea erabilera nabarmen jaisteko. Lagunartean maila hori ez da hain argia, erabilera ziurtatzeko agian ez da ezinbestekoa denek jakitea, baina bai gehienek.

Gizarte-ingurunea edo gune soziolinguistikoa zenbat eta euskaldunagoa izan, euskararen erabilera orduan eta handiagoa da. 1. gune soziolinguistikoa

(biztanleriaren %80k baino gehiagok euskaraz dakite) euskaldunek nagusiki euskaraz egiten dute, bai etxean, bai lagunartean; 2. gunean (euskaldunen proportzioa %45-%80 artekoa da) euskaraz erdaraz baino gehiago egiten dute; 3. gunean (euskaldunen proportzioa %20-%45 artekoa da) euskaraz erdaraz hainbat; eta 4. gune soziolinguistikoa (biztanleriaren %20k baino gutxiagok dakite euskaraz hitz egiten) erdaraz euskaraz baino gehiago egiten da.

Edonola ere, norberaren harreman-sareko euskaldunen dentsitatea eta gune soziolinguistikoa oso lotuta daude edo, zehatzago esateko, sarea, neurri handi batean, gune soziolinguistikoa araberakoa da. Bi aldagai hauek faktore bakarra osatzen dute, faktore sozioestruturala. Faktore hori da, hain zuzen ere, euskararen erabilera gehien eragiten duena.


## HIZKUNTZA-ERABILERA GUNE SOZIOINGUISTIKOAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA (EUSKALDUNAK, 1996)



Euskararen erabilera baldintzatzen duen bigarren faktorea hizkuntza-gaitasun erlatiboa da, hau da, euskaraz edo erdaraz hitz egiteko erraztasun handiagoa edo txikiagoa.

Euskaraz erdaraz baino errazago hitz egiten duten elebidunek ia beti euskaraz egiten dute etxean zein lagunartean; elebidun orekatuek euskaraz erdaraz hainbat egiten dute eta erdaraz hobeto aritzen diren elebidunek nagusiki erdaraz.

## HIZKUNTZA-ERABILERA HIZKUNTZA-GAITASUN ERLATIBOAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA (EUSKALDUNAK, 1996)



## ***Euskararen erabilera etxean eta lagunartean adinaren arabera***

**Etxean eta lagunartean euskararen erabilera jaitسي egiten da adinak behera egin ahala**

### **a) Etxeko erabilera**

Inkestatuen adinak behera egiten duen heinean nabarmen jaisten da euskararen erabilera etxean. Neurri batean ala bestean, gainera, joera hori hiru lurraldeetan agertzen da.

Euskal Autonomi Elkartearen, 34 urtetik gorako euskaldunen etxeetako erdian baino gehiagotan (%57) nagusiki euskaraz hitz egiten da; 25-34 urteko inkestatuen etxeetako %41ean nagusiki euskaraz hitz egiten da eta %39an gaztelaniaz. Azkenik, 16-24 urteko euskaldunen etxeetan


gaztelaniaren erabilera da nagusi, eta bakarrik %31n egiten da nagusiki euskaraz.

Nafarroan, adinaren araberako aldaketak txikiagoak dira. 34 urtetik gorako euskaldunen etxeetako erdian (%51) nagusiki euskaraz egiten da eta proportzio hori %38ra jaisten da adin horretatik beherakoetan etxeetan.

Iparraldean, euskaldunen artean egindako laginketa ez da datu erabat fidagarriak eskaintzeko modukoa. Hala ere, esan daiteke euskararen erabilerak beste bi lurraldeetan baino askoz nabarmenago egiten duela behera, adina jaitسي ahala. Beherakadarik handiena 50 urte baino gutxiago dutenen artean gertatzen da.



# ETXEKO ERABILERA ADINAREN ARABERA ETA LURRALDEKA (%) (EUSKALDUNAK)



Hala ere, elkarrizketatuaren adinak ez du etxeko batezbesteko adina isladatzen, etxe berean belaunaldi desberdinetako pertsonak bizi daitezkeelako. Inkestatuaren adinaren eta etxeko batezbesteko adinaren artean nolabaiteko harremana dagoela dirudi 34 urtetik gorako pertsonen artean. Adin horretatik behera, aldiz, harremana desagertu egiten da, edo hobeto esanda, inbertitu, gazte gehienak gurasoekin bizi direlako.

Horrenbestez, inkestatuaren adinaren arabera, euskararen erabileran dagoen jaitsierak ez du zerikusi handirik etxean bizi direnen batezbesteko adinarekin.

Erabileran gertatzen den beherakada hori euskara ikasi duen lagun-kopuru handiari lotuta dago. Euskara ikasi dutenak gehienbat ama-hizkuntza erdara izan duten gazteak direnez gero, ez dute familia erabat euskaldunik.

Beste era batera esanda, inkestatu euskaldunen adina jaitsi ahala, etxeko euskaldunen dentsitateak ere behera egiten du, euskara ikasi dutenen, gehienbat gazteen, etxeko giroa ez delako erabat euskalduna. Eta, aurreko atalean ikusi

dugun bezalaxe, etxeko euskaldunen dentsitateak euskararen erabilera etxean erabat baldintzatzen duenez, inkestatuaren adinak behera egin ahala erabileran beherakada handia ematen da.


Euskal Autonomi Elkartearen euskara ikasi dutenak gehiago direnez gero, familiako euskaldunen dentsitatea asko jaisten da adinak behera egiten duenean: 64 urtetik gorako euskaldunen artean, etxe guztiz euskaldunetan bizi direnak %85 diren bitartean, 16-24 urte bitarteko gazteen artean erdira jaisten da portzentaia (%43). Beraz, etxeko euskararen erabilera jaitsi egiten da adinak behera egin ahala: 64 urtetik gorako euskaldunen %62k nagusiki euskaraz hitz egiten dute etxean, baina 16-24 urteko gazteen artean, aurrekoen erdiak (%31) baino ez.

Nafarroan, euskara ikasi dutenak gutxiago direnez gero, etxeko euskaldunen dentsitateak eta euskararen erabilerak behera egiten du, adinarekin batera, baina ez EAEn beste.

Euskaldun guztiak kontuan izan beharrean, familian denek dakitenean, adin-taldearen artean ia ez dago alderik euskararen erabilerari dagokienez, ondoko irudian ikusten den bezala. Beherakada txikia antzematen da 25-34 urtekoen artean, baina berehala berreskuratzen da hurrengo adin-taldean, 16-24 urtekoen artean.




# ETXEKO ERABILERA, EUSKARA DENEK EDO IA DENEK DAKITENEAN, ADINAREN ARABERA ETA LURRALDEKA (%) (EUSKALDUNAK)



Euskal Autonomi Elkartea

Iparraldea  
(lagina ez da nahikoa adin-taldekako azterketa egiteko)

Nafarroa



- Nagusiki euskaraz
- Euskaraz erdaraz hainbat
- Nagusiki erdaraz

Iturria: 1996ko soziolinguistikako inkesta

## b) Lagunarteko erabilera

### Lagunarteko euskararen erabilerak gora egiten du 16-24 urtekoen artean, hiztun berri gazteei esker

Gehienok adin beretsuko lagunak ditugunez, lagunarteko euskararen erabilera aztertzeak belaunaldi desberdinen arteko bilakaera ezagutzeko aukera ematen du.


Euskal Autonomi Elkartearen, euskaraz nagusiki hitz egiten dutenen portzentaiak behera egiten du pixkanaka. Hain zuzen ere, 65 urtetik gorakoen artean %68k egiten dute nagusiki euskaraz eta 25-34 urtekoen artean %33k. Adin-talderik gazteenean (16-24 urte), ordea, euskararen erabilera %38ra igozten da. Izan ere, gazteenen artean, 20-34 adin-taldearekiko euskararen erabileran gertatu den igoera, batez ere, lagunarteko euskaldunen dentsitatea hazi delako izan da. Hazkunde hori euskara ikasi dutenen gazte-kopuru handiak eragin du. 16-24 urte bitarteko gazte euskaldunen erdia (%53) lagunartean denak edo ia denak dira euskaldunak; 25-34 urte bitartekoaren artean, aldiz, hirutik bat (%37).

Nafarroan ere behera egiten du euskararen erabilera adinak behera egiten duen heinean. Beherakada ez da Euskal Autonomi Elkartekoa bezain handia, baina etengabea da. Nolanahi ere, beheranzko joera hori zertxobait leuntzen da gazteen artean. 65 urtetik gorakoaren artean nagusiki euskaraz hitz egiten dutenak %66 izatetik, 25-34 urtekoen artean %40 eta 16-24 urtekoen artean %34 izatera jaitsi dira. Euskal Autonomi Elkartearen ez bezala -bertan lagunarteko euskararen erabileraren beherakadan inflexioa gertatu da dagoeneko-, Nafarroan ez da inflexiorik antzeman, izan ere, euskararen berreskurapena eta, bereziki, hiztun berriak irabazteko prozesua, Euskal Autonomi Elkartearen baino txikiagoa eta berantiaragoa baita.





## LAGUNARTEKO ERABILERA ADINAREN ARABERA ETA LURRALDEKA (%) (EUSKALDUNAK)



Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta



**E**uskararen erabilerari dagokionez, honako hau izan daiteke ondoriorik garrantzitsuenak: azken urte hauetan euskara hezkuntza-sisteman sartzearen ondorioz batik bat, asko hazi da elebidunen portzentaia Euskal Autonomi Elkartearen. Hazkunde hori lagunarteko euskararen erabileran antzematen hasi da dagoeneko, gero eta handiagoa baita euskaldunen dentsitatea lagunartean. Familian, aldiz, ez da inolako hazkunderik antzematen euskararen erabileran, elebidun gazteenen gurasoak erdaldunak direlako oraindik.

Horrenbestez, aurreikuspenen arabera, datozen hamar urteetan elebidun-kopuruak nabarmen egingo du gora, baita lagunarteko euskararen erabilerak ere, azken kasu honetan neurri txikiagoan bada ere. Aitzitik, ez dirudi familiaren barruan euskararen erabileran hazkunde handirik izango denik, euskara ikasi dutenek gurasoen etxea utzi eta euren familia sortzen dutenean hasiko baita adinaren eragina antzematen.

Hezkuntza-sistema euskalduntzeko politikari eutsiz gero eta, euskararen familia bidezko transmisioari eta gazteenen artean hitzun berriak irabazteari buruzko azken urteetako joerak berresten badira, harreman-sareetako

hizkuntza-osaeran aldaketa handiak gertatuko dira. Ondorioz, gazteen arteko euskararen erabileran hazkunde nabarmena gerta daiteke eta 20 urte barru gehiago hitz egingo litzateke euskaraz gazteenen etxeetan.

Nafarroan antzeko joerak ageri dira hezkuntza-sistemaren bilakaerari, familia bidezko transmisioari eta hitzunak galtzeari eta irabazteari dagokionez, besteak beste. Hala eta guztiz ere, ezagutzaren hazkundeak ez du oraindik erabileraren hazkunderik eragin; alabaina, gazteenen artean, moteldu egin da azken urteotan erabileran gertatzen ari zen beherakada. Izan ere, Nafarroan euskara berreskuratzeko prozesua Euskal Autonomi Elkartearen baino txikiagoa da kuantitatiboki eta berantiarragoa denborari dagokionez. Hala ere, azken urteetan antzeman diren joeren arabera, hemen ere euskararen erabilera hazi egingo dela esan daiteke.

Iparraldean bilakaera soziolinguistikoaren adierazle guztiek, familia bidezko transmisioak, galera-irabaziek, ezagutzaren bilakaerak eta familia zein gertuko komunitateko erabilerak, euskararen etengabeko galera moteldu beharrean, areagotu egingo dela adierazten dute. Izan ere, adierazle horien arabera, euskara oso maila baxuetan dago hainbat esparrutan eta euskararen erabilera sustatzeko beharrezkoak diren neurriak premiaz hartzen ez badira, ezin izango da euskara gordetzeko edo bizirik iraunarazteko beharrezkoa den gutxieneko maila edo atalasea bermatu.

